

# Oteitzaren traizioa?

JOAN MARI TORREALDAI



**O**TEITZAK bere ondarea Nafarroako herriari eskaini diola eta, asaldaturik dabil jendea bazter hauean. Oteitzaren jokabideak beti

sortzen du hizpidea eta zer pentsaturik ere. Eta kasu honetan, bederen, gogoeta aukerarik ere.

Jendaurrean azaldu diren iritzi batzuetan ematen du Oteitzak atzerria, estranjerria, eraman duela bere obra, bere herriari traizioa eginez. Batzuentzat, izan ere, Euskal Herria hiru probintziertara mugatzen ari da gero eta gehiago.

Beste batzuk Oteitzaren kasketaldizat jotzen dute erabakia.

Salakuntzak ez dute piperrik balio, nere ustean. Esanguratsua iruditzen zaizkit, aldez, Oteitzak berak egindako adierazpenak. Oteitzak garbi utzi du Nafarroa Euskal Herria dela, Nafarroako agintariak harrera abegitsua egin diotela egitasmoari, eta, alderantziz, Komunitate Autonomoko kultur agintariak muzin egin diotela. Kultur proiektu nazional baten gabezia azpimarratu du Oteitzak, eta dagoen kultur politika atzerakoitzat jo du. PNV, Joseba Arregi, eta Xabier Arzalluz izen eta guzti aipatzen ditu, erruduntzat jotz.

Nik ez dakit erruduna zein den historia honetan. Begi bistakoa behintzat bada gure kultur gidariak ez dutela asmatu Oteitza bereganatzen, ez Oteitza eta ez bere obra. Porrot askoren ondorioa da hau. Komunitate Autonomo kultur gidarien porrota, batez ere. Bakoitziari berea.

Eta aukera galduta baten historia: euskal eskulturgile guztien museo eta eskola eredu garri bat egiteko aukera, Oteitzaren lana oinarritzat eta abiapuntutzat hartuz. Altxuzan egin daitekeela? Agian bai. Baina nik nahiago nukeen horren kokalekua euskaldungoaren dentsitate handiena dagoen gunean. Komunitate bateko zein besteko kultur gidarietaz gutxi fiazten naizenez, euskal kulturarako garantiarik ziurrena kokalekuaren ikusten dut, ingurune euskaldunetan. Hori bai izan daitekeela ('zitekeela')? 'etorkizunerako inbertsio estrategikoa'.

# Hemen ere

JEAN LOUIS DAVANT



## «NESKATOAK

berehala, ikusi zian bezala, hiru dozena bazabiltzala borta batek besteala». Jaun koka gorriz jauntzi da, zozolista

dela dio, baina beti berdin traidore da. Bai, Agramontesak eta Beaumontesak berriz gerlan ditugu Euskal Herrian, eta Beaumontesak iduriz nagusi, mementoko segurik.

Ez uste ukan ongi dagoenik ipar aldean. Araberan, jendetza kontutan harturik, hego aldeak bezainbat jasaiten du hil eta gartzelatu kopuruz. Gainera, euskara debekatu zaio ipar aldekoari auzitegian, hego aldeko haurrideak itzultzale bat duen auzi berean.

Horrela gabilta giza eskubideen erresuman... edo errepublikan, berdintsu baita, nahiz guk erregea hauteskunderaz aukeratu dugun. Duela berrehun bat urte, Robespierre tiranoa hil zuten, baina beti bizirik dago harek asmaturiko 'jacobinisme' ospetsua. Eki aldean heregin du Estatu Jainkoak. Hemen ere agian laster...

## ● ARGIA

### Silikona

Eztabaida parlamentario xelebratu izan da Gasteizen 'Egunkaria' dela eta. Sofrikariora zigortu nahi gaituzte politikariek. Alderdi guztiek lagundu nahi, ikusi batera, baina bidean ez dira ados jarri. Emaizta: zero pezeta. Ohar bedi irakurlea, orain laguntzeko prest dauden alderdiak (EAJ, EA, EUE...) duela urtebete proiektuarekiko erabat kritikoa edo aurkari arituak direla. Ordutik indarrean itxura hobetzeko, protestak galantak eta silikona injekzio ederrak egin eta gero, eta ez dakite orain mutur aurrean dutenari nola aurre egin. Kartarik gabeko ordago gehiegi jo ziren partida honen hastapenean. Urtebete behar izan dute lagundu beharrez jabetzeko. Beste hainbeste beharko al dute nola gauzatu erabakitzeko?

JOSU LANDA

## ● EL MUNDO

### Atutxak gehiegi, HBk gutxiegi

Barne Saileko kontseilaria urrunegi joan da adieraztean hurreman estua dagoela 'ETA' erakundea eta HBren

# H E M E R O T E K A

siglekin babesten den jende guztiaren artean' eta zaku mafioso berean sartzean HB, LAB, Egin eta Egunkariako militante, sindikalista eta langile guztiak. Atutxari ondo etorriko zitzaion honako atsotitzaren jakituria: gai askotan dabilenak gutxi sakontzen.

Labur gertatu den HBren prentsurrekoa izan da Atutxaren erantzuna. Ondo baino hobeto haserretzen du kontseilaria, koalizioa zuzenean 'zerga iraultzailearen' sareekin nahastea ahalbiderezko frogarik ez izateak, baina ez du erakutsi beregain hartzen duenik HBn ustez inplikaturik dauden pertsonak egoteak zer esan nahi duen.

MARIANO FERRER

## ● LAVANGUARDIA

### Oso ondo, mutilak

Ertzaintzak, Eusko Jaurlaritzak, azkenean deskubritu dute bideoen bidez HB inplikaturik dagoela ETAk enpresariak egindako estorsioan. Orain arte itxarotera eztenkagarria izan den arren. Giro erradikalak bizi izan ditugunok badakigu nondik da izaten tiroak. Eta HBren zirimismo kriminala, ETArekin duen kolaborazio estua justifikatzen ahaletinduta. Madrilgo sarraski izugarriarekin batean gertatu da... Felipe Gonzalezen hasierre ere dugurria da. Lastima da ordu



Balitzko etorkizuna: «Hemen ez gaude ham gaizki. Egungero bost minutu ematen dizkigute mehatxu egiteko».

MINGOTE / ABC

batzuk lehenago Li Pengekin ez haserretu izana. Edo Estatuaren terrorismoa justifikaturik al dago burkideatzen politikoa edo interes ekonomikoangatik?

BALTASAR PORCEL

## ● EL PAIS

### HB

Zabaletak adierazi du Reizabal atxilotuak —lehen HBkoa— erabateko interesik eza eta altruismo jarrera eduki zuela ETArenezko zerga kobratzean. A zer nolako azkartasuna erakusten duen esaldi horrek: eraba-

teko interesik eza eta altruismoarekin, bere onerako, torturatu eta erre zituen Torquemadak hereseak. Eta inolako zalantzarik gabe GALEkoren batek hil edo hiltzea agindu zuen batere interes pertsonalik gabe, altruismoarekin. Neure buruari galdetzen diof zer egingo lukeen Reizabalek baldin eta zergaren biktimak ordainduko ez balute. Ea bere altruismoa bultzatuko lukeen behar zuen presioa egitera: haurrak akabatu edo emakumeak mutildu. Nork esan zuen HB legez kanpo jarri behar zela? Zentzugabekeria izango litzateke: ez dago hitzeginen uzte baina hobegorik behin-betirako hondora daitezke.

ROSA MONTERO

# ZUZENDARIARI

## «Egonean... baina ez giro»

Behin ikusi behar eta... ikusi ez banu hobe. Behin egon behar ostiral arratsaldeaz lasai etxean, telebistari begira, egonean... baina ez giro.

'Egonean giro' saioaz ari naiz bai, eta batipat Joseba Agirretxeak, bideoklipen atalean izan zuen jarreraz eta egin zituen komentarioez.

Atal honetan Josebak, jendeak bidalitako eskutitzak irakurri behar izaten ditu, eta joan den ostiralean gutunak ez ziren nonbait oso euskara txukunetan idatzitakoak. «(...) nire lagunari zoriondu nahi diot» bezalakoak irakurri zituen, eta irakurtzen ari zen bezala, alfabetatze premia ederra zegoela komentatu zuen Josebak hirutan.

Joseba, sar zaitetz zure galtzetan eta egin ezazu dagokizun lana, besterik gabe! Hiru aldiz egin zenuen bai gauza bera: esaldi traketza irakurri eta jarraian gutunaren idazleak zuen alfabetatze premia adierazi. Jokabide eskasa eta harroa nire ustez.

Euskal Telebistan antzeko astakeriak sarritan entzun ohi ditugu. Ostiral gauen bertan eta bila ibili gabe, hauxe entzuteko aukera izan zuen: «Zuk babestu egin zenion zure neskari». Zuk irakurritako eskutitzetako esaldi traketak horiek bezain traketza da honako

hau baina, noski, larritasun handiagokoa, ustez alfabetatua dagoen batek botatakoa baita.

Eta ez hori bakarrik, zorrerik ere behin baino gehiagotan mintu izan ditugu neure bellarriak. Gogoan ditut oraindik Kalejiran jaurtikitako hainbat esaldi 'jator': «Har ditzagun, txalo baten azpian» edo «Txalupa horiek zozketatu behar dituzue». (ez txalupa rifatu, baizik bazterrean utzi, alegia). Esan bezela, Joseba, zure lana ahalik eta hobekien egiten saiatu zaitetz, eta utzizazu euskara kontuak beste teentzat, zuzenean ari zarenean. Kamararen aurrean duzun gaitasuna zenbaterainokoa den ederkiki frogatu duzue eta ez duzu horrelako komentarioen beharrik. Ulertuko duzula uste dut.

XOLE GALARRAGA

Oiartzun (Gipuzkoa)

## Giputzak inteligentzia ilaburxko


Euskal pressa idatzian agertu da (92/01/14) Gorka Palazio neure ezagunaren artikulatu bat, zineetan agertzen dituen opionone zentzibait euskara buturen gaian. Textualki izkiribatzen bait derauk: «ikasle gehienak gipuzkoarrak direla

jakitun, eskola ematen diedanean, Euskaltzaindik aholkatuiko zenbait gauza zuzentzen ahaletintzen naiz, saialdia askotan aferrikakoa izanik ere. Gipuzkoarrei asko kostatzen zaie...»

Ez dut sinhesten ahal giputzak inteligentzia minusvaliatuak (ergelto) diratekenik eta ondorioz beharra duketenik bisitatzeko konsultorio psikiatrikoei, ez txanda iguriki behar duketenik foniatra edota fonologoan. Galazio desegoki mintzo da Gipuzkoako unibertsitario euskaldunak. Prezisioneraz arazoa analysatu beharrean, problema desbideratzen du diagnosi oker bat eginez. Baldin argudiatu ukhan balu ezen giputzak —indisziplinari antipatriotiko— ez dutela borondateirik erraiteko joan, jan, jai... eta abar euskal formaz prononztatuz konforme nengo edo agian ez dutela 'uste' hori holaxet prononztatuz behar dutenik. Gipuzkoako buruxagi euskal kulturakok, nola adibidez euskaraz desohoreski mintzo den akademiko Sarasolak, othe daki Zuberoko erranaldi honoko hau: «haigu biderdi». Guk, diasporatarrak, oihu egiten ahal derauegu giputz bihotz lanhoko euskalgintzako geure neba-arreba lankideei: «txauste biderdi».

ERRAMUN GERRIKAGOITIA Munitibar (Bizkaia)

# GAIA JARRITA



## Euskadiko sei orduak

Urte osoan egonak gera egun haundi honen pozak kirolariak saiatzen dira estutuaz bere hortzak ta ikusleek gozatzen ditugun garen egi ta bihotzak sei ordu luze txaloa joaz kendu eskutako hotzak minez dagoen luzeak dira pozik dagoen motzak.

MARJIN REZABAL 'OLASO'

Administrazio Kontseiluko Lehendakaria:

MARTIN UGALDE

Zuzendaria:

PELLO ZUBIRIA

Kontseilu Editorialeko Lehendakaria:

JOAN MARI TORREALDAI

Zuzendariordeak:

NEREA AZURMENDI

LUZIEEN ETXEZAHARRETA

INAKI URUA

Kontseilari Ordezkariaz:

JOXE MIEL ZUMALABE

Publizitate:

KORNELJO ROTETA

Gerentea:

INMA GOMILA

Batzorde Parekidea: 72564 E  
Lege Gordailua: SS 800/90



## HELBIDEAK

Erredakzio eta Tailerra: ANTZA S.A. Industrialdea 01-02 Pabiloak / 20.160 Lasarte-Oria / ☎: 37 15 45 / Faxa: 36 54 93

Egoitza soziala, Pulizitate eta Administrazioa: Antso Jakituna, 16-1 / 20.010 Donostia / ☎ 46 90 22 / Faxa: 45 59 57

Arabak: San Antonio, 20-1.ezker. / 01005 Gasteiz / ☎ 23 38 72 / Faxa: 23 38 73

Nafarroa: Iratxe Montastegia, 45-13.esk. / (Irrintzi dorrea) / 31011 Iruñea / ☎: 17 80 78/79 / Faxa: 17 80 77

Bizkaia: Barroeta Aldamar, 2-1.eskuma. / 48002 Bilbo / ☎: 423 90 62 / Faxa: 423 94 60

Lapurd / Nafarroa Beherea / Zuberoa: 2. Galuperia kaia. / 64100 Baiona / ☎: 59 59 35 75 / Faxa: 59 25 75 11